

2019ko MAIATZAK 19

RAFTING-A BIDARRAIN

Maiatzean mendia alde batera utziko dugu eta eguna pasatzeko Iparraldeko Errobi ibaian rafting jaitsiera egiteko aukera izango dugu. Ondoren Bidarrai herrian guk eramandako janariarekin bazkalduko dugu eta solasean denbora pixka bat pasa ondoren, Oiartzunera bueltatuko gara arratsalde erdialdean.

Hilabete honetan Iparraldeko Errobi ibaian rafting jaitsiera bat egiteko aukera proposatzen dizuegu. Goizeko 9:00tan abiatuko gara Oiartzundik autobusean Bidarrai aldera. 11:00ak inguru, Bidarraiko Artekako kirol ekintzetako gunean elkartuko gara. Bertan, arduradunek aurkezpena egin eta jaitsiera egin behar dutenei materiala banatuko diete (neoprenoak, txalekoak, kaskoa eta arraunak). Ondoren, haien garraioa erabilita, jaitsiera-abiapunturaino gerturatuko gara. Ontziak hartuko ditugu taldeka eta Errobi ibaiaren jaitsierari ekingo diogu. Gero, Bidarraiko kirol gunera itzuliko gara berriz ere eta dutxatu nahi duenak bertan egin ahal izango du.

Azkenik, indarrak berreskuratzeko, bakoitzak ekarritako bazkaria janez elkarrekin otordua egingo dugu 13:30ak aldera.



IRTEERA ORDUA: 09:00etan Ikastolako aparkalekutik.

ITZULERA ORDUA: 17:00etan Ikastolako aparkalekura.

PREZIOA:

- Ikasleak: 20,00 € raftinga + 4,00 € autobusa
- Helduak: 20,00 € raftinga + 4,00 € autobusa

IZEN EMATE EPEA: Maiatzak 15 idazkaritzan

OHARRAK:

1. LH 3. mailatik gorako ikasleek izango dute Haurtzaro Ikastolako mendi taldeak antolatutako ibilaldietara joateko aukera.
2. Antolakuntzak erabakitako kopurua gaindituko balitz, epe barruan izena eman eta ordaindu dutenen artean erabakiko da, zozketa bidez, nor izango duen ibilaldira joateko aukera.
3. Ordainketa guztiak idazkaritzan egingo dira.
4. Ibilaldira joaten diren ikasleen artean opariak zozkatuko dira.
5. Azken orduko ezustekoetarako telefonoak: Imanol 636 73 28 44; Jon 649 42 72 31; Jone 696 15 39 02.
6. Mendi taldearen urteko irteeren informazioa eta irteeretako argazkiak www.haurtzaroikastola.eus.

Haurtzaro Ikastolako Mendi Taldea

